

HERNANIK kronika

2003 urtea
Ekainak 20
Ostirala
Alea: 801
www.kronika.net



Ezkerrean, Plaza Berrian txosna jartzen eta eskubian, Tilosetan. Denera 12 txosna jarriko dituzte aurten.

BERRIAK ELKARTEA

Zirko tailerra gaur Plaza Berrian

BERRIAK elkarteak zirko tailerra antolatu du gaur umeentzat, Plaza Berrian. Kalejirak emango dio hasiera tailerrari eta segidan, malabareak, soka, zankoak, monozikloa eta akrobazia eta ekilibrio tailerrak izango dira. Maimur taldea da tailerrak emango dituenak, gaur arratsaldeko 18:00-etatik aurrera. □

Musika Eskolako ikasleen kontzertua gaur Tilosetan

UDAL Musika Eskolako ikasleak kontzertuak ematean ari dira aste guztian zehar. Gaur *Ekhin* eta *Ihes* taldeek emango dute kontzertua, arratsaldeko 19:00etatik aurrera, Tilosetan. □

Liburutegia itxita egongo da San Joanetan

SAN Joan jaiak direla eta itxita egongo da Udal liburutegia, ekainaren 23tik 27ra. Uztailaren 1etik aurrera, berriz, Udako ordutegian egongo da irekita: astelehenetik ostiralera goizeko 09:00etatik eguerdiko 14:00etara eta larunbatetan itxita egongo da. □

Kiroldegia itxita San Joan jaiak direla eta

KIROLDEGIA itxita egongo da datorren igandetik ekainaren 29 arte, San Joan jaiak direlako. Festaz gain igerilekuari urteroko garbiketa ere eman behar zaio itxita egongo den egunetan. □

CDH-k urteko bazkaria du bihar

CD HERNANIK urteko bazkaria izango du bihar, larunbata, Usurbilgo Aginaga sagardotegian, eguerdiko 14:00etan. □

San Joanak gaur hasiko dira txosnetan

■ Hip Hop kontzertua dago Tilosetan, 22:30etan ■ Aurten, 12 txosna jarriko dituzte: 11 Tilosetan eta bat Plaza Berrian ■ Aurtengo berezitasuna Mozorro gaua da.

SAN Joan jaiak datorren astelehenean hasiko dira ofizialki, baina, praktikan gaur gauean emango diote hasiera txosna eta tabernetan. Txosna batzordeak Hip Hop kontzertua antolatu du gaur Tilosetan, gaueko 22:30etatik aurrera: *Urbanosapiens* eta *Arianna Puella* ariko dira.

Mozorro gaua

Biharko egunak ekarriko du aurtengo berezitasuna, txosnetan eta zenbait tabernetan, disfraz gaua antolatu baitu Txosna Batzordeak. Gaia ake-

larrea da, eta Txosna Batzordetik Kronikari adierazi diotenez, asmoa da gai hori errendikazio gisa erabiltzea. Txosna bakoitzak ikusiko du zer aldarrikatu eta nola erabili gaia, eta jendeari ere dei egin zaio mozorrotzera animatzeko. Beste duda zen igandean zer giro egongo den festarako, baina, Errealak jokatzen duela ikusita, baliteke jende asko etortzea garaipena ospatzera edo penak itotzera eta txosnak irekita egongo dira. Ordutegia ere erabakia dago: bi ostiraletan eta igandean 06:00ak arte

egongo dira, larunbata eta astelehenean 07:00ak arte eta gainerako egunetan 05:00ak arte.

Hamabi txosna

Aurten hamaika txosna egongo dira Tilosetan: Molotoff, AEK, Euskal Herrian Euskaraz, AHT, Bilgune Feminista, Ikasle Abertzaleak, Ekin, Astindu+eskalatzaileak, Askapena, Gazte Gunea eta Segi. Plaza Berrian, berriz, presoen aldeko txosna egongo da. Hamabi txosnatatik AEKkoan eta presoen

aldeko txosnan jaten ere emango dute, edariak serbitzeaz gain.

ASTEBURUKO EGITARAUA

GAUR, OSTIRALA: 22:30etan Hip Hop kontzertua Tilosetan. 01:00-etik aurrera Selektah Sound System Molotoffeko txosnan.

BIHAR, LARUNBATA: Mozorro gaua, gaia akelarrea. Kuzu, Daddy Jeff, Mr Snoid, Neron, Sir eta DZ Molotoffeko txosnan.

ETZI, IGANDEA: 19:00etan, malabar tailerra Tilosetan Maimur taldearekin. DJ prest eta DJ Blue Eye Molotoffeko txosnan.

Angel Olan 'Hernaniar Bikaina' izendatuko du bihar Xalapartak

XALAPARTA elkarteak Angel Olan izendatuko du bihar *Hernaniar Bikaina*. Olanek 30 urte daramazki Afrikan misiolari, eta azkeneko 11 urteak Etiopian egin ditu. Xalapartak Olanen ibilbidea goraiatu du "lan humanitarioa egiten duelako miseriarik haundiena dagoen tokietan". Xalapartaren hitzetan Olanek kristau ebanjelioa zabal-

tzeaz gain, arkitekto lanak, ingeniari, sendagile, urak kanalizatu, bertako hizkuntza eta kultura ikasi, uztak hobetu, irakasle aritu eta proiektuak aurrera ateratzeko diru laguntzak bilatu ditu. Horrez gain, Olanek 300 umezurtz ditu gaur egun bere tutela-pean, gurasoak gerran edo gaitzak jota hil baitira. Misiolari hernaniarraren lanari

laguntzeko Hernaniko hainbat lagun ari da diru biltzen eta errifa bat atera berri dute.

Meza Parrokian

Hernaniar Bikaina afalondan izendatuko dute Xalapartan. Aurretik, arratsaldeko 19:00etan Olan berak emango du meza Juan Bataiatzailea Parrokian, hildako sozioen alde.

Hernaniar bikainak

Orain arte Xalaparta elkarteak izendatutako *Hernaniar Bikainak* dira: Joxe M. Garin, Elias Kerejeta, CD Hernani, Martin Zabaleta, Antxon Idarreta, Luis Blas Zuleta, Prudentzio Aierra, Juan Bautista Adarraga, Inazio Iruin, Manuel Sagarna, Jazinto Santin, Fermin Cuesta eta bihar Angel Olan. □

www.kronika.net
kronika
Intemeten helbide berrian

AITAN-ETXE
TABERNA
EGUNEKO MENUAK
Larramendi 15 - Tel.: 943 55 00 46
Hernani

HERNANI HIZKUNTZAK
Gure Ingelesetxea
ZORTE ON, BIHARKO FIRST eta ADVANDED azterketarako: Paul, Aitziber, Unai, Ainara, Harri, Amaia, Mikel, Joxe Luis eta Gari.
UDAKO IKASTARO
ERDI-TRINKOAK HERNANIN, IRAKASLE NATIBOekin
AURREMATRIKULA ZABALIK (2003-04 ikasturtekoa ere bai)
Deitu Alan / Joe
☎ 943 33 11 08
KALE NAGUSIA 41, 1

ARIZMENDI
jatetxea
Bazkariak Afariak eta Hamaiketakoak
Jai zoriontsuak ta EMAN MOTEL!!
Antziola auzoa, 86
☎ 660 976 278
20120 HERNANI

ETXE ONENAK, S.A.
GARAJE ITXIAK
"OBLATOS"ETAN SALGAI
Informatu eta saldu:
☎ 943 33.22.37

Tel.: 943 551494 / 943 551912
Fax: 943 551130
San Joan jai onak pasa ditzazuela
Kardaberaz 68
Hernani 20120

GESTORIA
ZULAIKA
ASESORIA

Palankariak eta Atleta Osoaren proba bihar, Lagun Artea elkarteak antolatuta

■ San Joan festen barruan, mahai tenis txapelketa, erakustaldiko ehiza txakur txapelketa, karabina txapelketa eta waterpolo txapelketa ere bihar dira.

SAN Joanetako egitarauaren barruan, Palankari txapelketa eta Atleta osoaren proba bihar dira. Palankariak 22garren Etxeberriko saria eta Euskal Herriko saria dute. Hernanitik Joseba Laburu botako du, eta beste 6-7 pertsona ere ariko dira lehian. Palanka Euskal Herrian asko egiten zen kirola zen garai batean, baina, joan deneko urteetan Hernaniko txapelketa-erakustaldi hauxe geratzen da. Bihar, larunbata, goizeko 10:00etan, Sagastialdeko pistan.

31garren Atleta osoa proba ere bihar jokatu da, Hernanin. Korrika, zaku altxatzen eta bizikletan neurtu beharko dituzte indarrak parte hartzaileek. Irteera goizeko 10:00etan izango da Urbieta kaletik.

Kirol ugari

Bihar, palanka eta atleta osoaz gain, kirol ugari dira, denak ere San Joanen bueltan antolatutakoak. Goizeko 09:00-etan San Joan mahai tenis txapelketa da kiroldegian eta ordu berean Urrietako Xoxokan, erakustaldietako zakurren ehiza txapelketa jokatu da, Txantxangorri antolatuta. 10:00etan, San Joan tenis txapelketako finalak jokatu dira kiroldegiko pistan. Arratsaldeko 17:00etan, karabina txapelketako kanporaketak dira Txantxangorri elkartearen eta 18:00etan, waterpoloko San Joan saria jokatu da igerilekuan.



Joseba Laburu iaz, Palanka botatzeko preparatzen.

Txapelketa gogorra

Waterpoloko taldeak San Joan sariaketa ikusgarria antolatu du aurtengoa. Nesken taldeak Bordeleko Girondins taldearen kontra neurtuko dituzte indarrak, 18:00etan eta mutilen

taldea Zaragozako CN Brillan eta Bordeleko Girondins taldeen kontra ariko da, 19:15etan. Hernaniarrek zail izango dute aurten txapelketa geratzen, kontrario gogorak etorri dira eta. □

San Joan egunean lizar adarrak egongo dira Udaletxeko arku txikian

■ Udalak jarriko ditu etxe sarreran jarri nahi duten hernaniarrek hartzeko.

OHITURA da San Joan egunean lizar adarrak etxe atariko atean jartzekoa, espiritu txarrik uxatzeko. Urtero herriko

hainbat portal adornatzen da lizarrez San Joan egunarekin eta aurten, lizar adarrak Udaletxeko arku txikitik hartzeko

aukera izango dute hernaniarrek. Lizarrak goizeko 08:00-etarako egongo dira arku txikian. □

INFORMAZIO ETA ERRESERBA EGITEKO DEITU

JAYREGI

jatetxea



Ekainaren 23an egun guztian irekita.
Ekainaren 24an. Eguerdian irekita. 18:00etatik itxita.
Festetan Menu bereziak.

Jauregi Bailara, Tel.: 943 550034 / 943 330424
Hernani (Gipuzkoa)

HITZ BITAN



Erroizenea eta Mendizabal eserita eta Zabala masajeak ematen.

✓ PELOTA -HERRI ARTEKO TXAPELKETA

Finalerako txartela jokoan gaur. Herri Arteko Pelota txapelketako finalaurrekoetan da Hernani eta bueltako partidua jokatu dituzte gaur kiroldegian, Donostiaren kontra. Lehengo astean 1-2 irabazi zuten hernaniarrek, baina, tarteoa kontran dute eta gaur ere bi partidu irabazi ezean zail izango dute finalera sailkatzea. Gaurko partiduan orain arte titular izan diren pelotariak jokatu dute Hernaniko taldean. Kadeteetan, Aizpitarte eta Gorrotxategik jokatu dute; jubeniletan, Arrieta eta Otegik; eta nagusietan, Mendizabal eta Erroizenea. Partiduak 21:00etan hasiko dira kiroldegiko frontoian. Hernani finalera sailkatzen bada Azpeitia edo Azkoitiaren kontra jokatu du finala.

✓ ERRUGBIA

Urteko batzarra bihar. Errugbi Elkarteak urteko batzarra egingo du bihar. Azken denboraldiko balantzea egin eta datorren denboraldirako egitasmoa eztabaidatu dute. Bihar, larunbata, 11:00etan Landaren.

✓ KANOA IKASTAROA

Elorrabin kanoa ikastaroa. Kirol Patronatuak antolatuta kanoa ikastaroak ari dira egiten larunbatetan, Elorrabi parean. Bihar izango da eta 2 txanda daude 10:00etan bata eta 11:30etan bestea. Debaldekoak dira eta adin guztietako jendearentzat. Txanda bakoitzean 10 lagunentzako dago tokia. Izen emateko kiroldegian bertan. Telefonoa 943 552185.

✓ ARTEA

Errapia taldea Beran. Hernaniko Errapia taldeak arte lan erakusketa jarri du Berako kultur etxean. Ordutegia: 10:00-14:00/ 16:00-19:00. Igande eta astelehenetan itxita.



Errapia taldeko zenbait kide arte lanen ondoan.

ZERBITZUAK

☎ TELEFONOAK

▶ Taxiak: 943 550093
▶ Udaltzaingoa: 943 333288
▶ DYA: 943 464622
▶ Autobusak: 943 556662
▶ Anbulatorioa: 943 006666
▶ Jokalari anonimoak: 943 331103

☎ FARMAZIAK

▶ Egunez: Chucla
Kardaberaz 48
☎ 943 551793
▶ Gaez: Atxa-Orbea
Lasarte. Hipodromo 6
☎ 943 363549